

# Zerbitzariren idazlan hautatuak

Jabier Kaltzakorta  
Euskaltzain osoa  
Deustuko Unibertsitatea  
2022an argitaratua, 640 or.  
ISBN: 978-84-124296-8-8  
Argitaletxea: Euskaltzaindia

JORAJURIA ITURRIA, Peio  
Kazetaria eta *Herria* kazetako kolaboratzailea

Ipar Euskal Herriko euskaltzale zenbaitek doi bat ezaguna genuen Jean Elizalde *Zerbitzari* (1883-1961). Doi bat bakarrik. Eta gehienek, egiari zor, osoki ezezaguna. Bagenekien azkaindar seme hori apaiza zela, *Eskualduna* astekariko kronikari aparta izan zela ere, bai eta Eskualtzaleen Biltzarreko idazkari leiala urte luzetan. Baina mamira sartuz, egia erran, gauza guti genekien hartaz. Hutsune hori handizki betetzen laguntzen gaitu Jabier Kaltzakorta euskaltzainak argitaratu berri duen *Zerbitzariren idazlan hautatuak* liburuak (Euskaltzaindia 2022).

## Liburu gotorra

Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztua izan zitzaigun obra eder hori, 2022ko apirilean. 640 orrialdeko obra da, baina ez luke gotortasun horrek irakurlea beldurrarazi behar. Hizkiak handiz etzanak dira paperean, eta irakurketa erraza da, Zerbitzariren euskara bikainetik iturriko uretik bezala atseginez edaten baita. Bi zati nagusi dauzka liburuak. Lehen partean, Zerbitzariren biografia dugu aurkitzen: behar-beharrezko orriak, ondotikako

*Euskera*. 2022, 67. 157-161. Bilbo  
ISSN 0210-1564

idazlearen luma aparta hobeki gureganatzeko. Eta bigarren zatian, Jabier Kaltzakortak hautatutako Zerbitzariren lan batzuk zaizkigu zerbitzatuak. Haren lan nasaian hautaketa eginik, paratzailearen arabera autorearen idazluma hobekienik islatzen dutenak. Liburuak zati hori du garrantzitsuena, horretan baitatza argitalpenaren balio nagusia.

### Nor ote genuen Jean Elizalde?

Lehenik eman diezaiozun gizonari behakoa. Jabier Kaltzakortak *Zerbitzari* idazlea digu gehiago aurkezten Elizalde gizona baino. Ohar batzuk egiten dizkigu, halere, gizonaz. Besteak beste, Luis Villasantek 1957an erranikoa ekartzen digu. Ordurako 74 urte zituen Jean Elizaldek eta “gizon argal, gihartsu eta zainarta” zela zioen Villasantek, eta ere “pentsaera zaharrekoa”. Hara hitz gutitan ongi laburbildua gure gizona. Hain zuzen, duela sei-zazpi urte Jean-Claude Bringuier eta Hubert Knapp zinemagileen *Le curé basque de Gréciette* dokumentala (31 min) ikusteko zortea ukan genuen (Parisko INA institutua –Institut National de l’Audiovisuel– da film horren jabea). 1958an ekoiztako dokumental zoragarria, zati nagusia Gerezieta apaietxe inguruan grabatua. 75 urte zeuzkan orduan Zerbitzarik eta Gerezieta erretore zen. Ikusten dugu bere sotana beltzarekin, kapelua beti buru gainean, begitartea eta ezpainak irribarretsu. Gizon argal eta zaildua, Villasanteren erranak osoki baieztatzen dituen. Filmegileak galdekatzen duelarik, den bezalakoa agertzen da, arraia, zorrotza, *voltairien* dio elkarrizketatzaileak (Voltaire frantses idazlearen zorrotasun berdintsukoa), zirtolaria, umoretsua, bere buruaz besteenaz bezala trufatzailea. “Gazte sortu nintzen eta gazte hilko naiz, hondakin zahar bat baldin banaiz ere”.

Handik hiru urtera hilen zen, bihotz-antsiak jota. Haren heriotzaren karietara zabaldu ziren lekukotasunek zertxobait gehiago ere agertzen digute. Piarres Lafittek *Herria* astekarian (1961-05-11) bere gisan omendu zuen Zerbitzari: “Bazuen maiz zerbait istorio bitxi kontatzeko, ez zuen parerik lan hortan (...). Osagarri onekoa, hedea bezain zaila, ala bizikletan, ala pilotan, ala balonean ezin lehertua zen (...). Pilotan ez baitezpada plaza gizon goxoa;

nahi zuen irabazi, eta kukuak ez bazion joiten, harrigarriko haserrealdiak biltzen zituen, dena oihu eta mehatxu (...) baina plazako kexuak plazako errautsak estaltzen zituen”. Hau ere gehitzen du Lafittek: “Eskuara bazabilan nehork ez bezala: errexa, lañoa, garbia, polita”. Eta artikulu berean ikasten dugu ere André Madré hazpandar jeneralak *Gure sorlekua* filma ekoiztu zuelarik 1956an, Zerbitzari izan zela euskarazko gidoilaria. Zoritxarrez, Josu Martinez bizkaitar zinemagileak Parisen aurkitu zuelarik film hori (ikus *Gure sorlekuaren bila* dokumentala, 2015), soinua desagertua zitzaion, ez baitakigu nolako gidoia landu zuen Zerbitzarik.

### Aberri handia, aberri ttipia

Zerbitzari pentsaera zaharrekoa zela zioen Villasantek. Lekukotasunek hain zuzen erakusten digute asko mailatan modernitateari aihur zegoela. Bestalde, Frantziaren aldeko ideologia ez zuela ezkututzen dio Kaltzakortak. Irakurtzea baizik ez da haren 1914ko Gerlako kronika saila, “gu frantsesak”, “Biba Frantzia!” eta horrelakoak, hortaz konturatzeko. Eneko Bidegainek hori bera digu erakusten *Gerla Handia, muga sakona* liburuan (Utriusque Vasconiae, 2009), Elizalde bezalakoentzat Frantzia zelarik aberri handia eta Euskal Herria aberri ttipia. Ideologia horretan, sortze-urte bereko Jean Ybarnegaray garaztar diputatuaren ildotik zebilen, hura ere gerlan ibilitakoa, adiskide handi zeukana, “gerlari gaitza”, “gure deputatu bipil eta suharra”. Eskuin muturrekoa zen “Ybar” –hala deitzen zuten lagunek– Vichyko ministro izana. Eta, hala ere, hari buruzko adiskidetasunari bururaino leial egon zitzaion J. Elizalde. “Francozale eta Ybarnegarayzale” zela Zerbitzari zioen Piarres Charrittonek ere (*Jakin* 97: 1996), halaber *Eskualduna* astekaria bere ibilbideko azken hamarkadan. Astekari hau debekatua izan ondoan, kolaborazionista izateagatik, *Herria* astekaria sortu zutenen artean aurkitzen badugu ere Zerbitzari, Piarres Lafitte, Jean Saint Pierre *Anxuberro*, Jules Moulier *Oxobi* eta horien ondoan, beti halako sumindura zerbait izan da Lafitteren eta Elizalderen artean. Alabaina, Ybarnegarayk etsaitzat zeukan Piarres Lafitte. Hala ere, Lafittek berak adierazi duenaz: “Zerbitzarik ez bagitu ere beti sustengatu, kazeta huntan ez diogu behin ere sendiarazi (...) oroituz abiatzean eman zaukun eskukaldi onaz” (Piarres Lafitte, *Nafar lapurtar idazle aipatuena*, *Elkar* 2001).

## Antologia

Idazki andana handia badu utzirik Jean Elizalde, besteak beste *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Herria* aldizkarietan. “Izengoiti askoren azpian ezkutatatu” zela dio Kaltzakortak, gehienbat *Zerbitzari* erabili zuen (bere idazkiak *Zure zerbitzari*, J.E. zituen askotan izenpetzen), baina ere *Azkaindarra*, *Bilharria*, *Haur prodigoa*, *Nornahi* eta beste. Zerbitzariren lan hautatuak zaizkigu liburu honetan eskainiak. Kaltzakortari iruditu zaizkion esanguratsuenak, batez ere prosazkoak, baztertuz aldiz bertso, antzerki eta itzulpenak. Piarres Larzabalen arabera, “Zerbitzariren antzerkiak eta haren pertsuak ez ziren hain egokiak”. Prosa, aldiz, paregabea zuela dio Kaltzakortak: “Elizalde pro-sistari ez diogu akatsik aurkitzen”, lapurtar idazlea euskarazko estilistarik handienetarikoa bat zaiola. “Axularren lapurterarekin ez du zerikusi handirik”, Zerbitzarirena modernoagoa da eta batez ere ahozkoa, esan-moldeen bidez ahozkoatasunari izugarriko indarra diola ematen. Eta aitortu behar da, testu horien irakurtzea atsegin handia dela, bereziki guretzat Iparraldekoontzat, edo bederen lapurtar edo baxenabartar garenontzat.

Zerbitzariren gerlako kronikak ditugu lehenik aurkitzen, bi alditan idatzitakoak, batetik gerla tokietatik zuzenki bidalitakoak eta bestetik hamabost-hogei urte geroago kronika horiek berak librekiago berridatzirik, osatuagoak (bigarren kronika horiek agertuak ditu ere Patri Urkizuk, *Jean Elissalde, LVII.a gerlan* titulupean, Alberdania, 1995). Alabaina, gerla tokitik ez zitekeen argitasun askorekin idatzi, armadako buruzagiek debekatzen zuten-eta. Arrazoi osoz ezarri ditu beraz Kaltzakortak bi lan horiek: ez da lan bera, nahiz errealitate dorpe beraz mintzo den. Zerbitzari guzia aurkitzen da kronika horietan, umoretsua, arrallanta, zorrotza, krudela batzuetan (“anglesak ez dio alemanari eperik utziko, tripako hertze guziak kendu arte”). Alemanen kontu ezartzen ditu gaiztakeriak, ez frantsesen kontu, eta frantsesetan euskaldunak direla balentria egile handienak dio ahoan bilorik gabe, gerlari ihes egin dioten euskaldunak, haatik, hastio dituela. Ezin uka halere Gerla Handiko euskal kronikari aparta izan dela Zerbitzari, Jean Etxepare eta Jean Saint-Pierre ere hala izan ziren bezala.

Ondotik aurkitzen ditugu erlisioneari lotutako idazkiak: *Théophane Vénard dohatsua*, *San Frantses Xabier...* eta ere, alor horri lotuak, bi bidaia-kro-

nika, *Metsikorat* bata, *Erromarat* bestea. Beti ere modu jostakinean idatziak, alaiki irakurtzen diren lerroak, salbu haatik zenbaitetan botatzen dituen iritzi pertsonal soberakinak, gaur egun aldizkari batek ezin litzakeenak onartu. Mexikarrak, adibidez, bereziki indianoak, jende alferrak eta zikinak zaizkio, gezurtiak (“hatsa bera gezurra dute”), mozkortzaileak, ohoinak... Gaur egungo irakurleak behar du jakin, gisa horretan, bere irakurketan iritzi horien gainetik aitzinatzen. Villasantek zioena, “pentsaera zaharrekoa” zela, bete-beteagan agertzen da esaldi horietan; ideologia oso hertsikoa zela dudarik ez da. Baina, aldi berean, zer deskribapen politak! Erromarako beila bide hori ere gozagarriki du kontatzen, trenean doazelarik batzuen eta bertzeen zurrungetaraino.

Eta hor ditugu ere beste kontakizun batzuk, *Etienne Pellot* hendaier itsas-turiaz, garaiko *Pilotariak* (Elizalde bera pilotaria izana zen, xisteralaria, bere *mentor* Ybarnegaray bezala), bai eta bost artikulua libre (hala nola Euskaltzaindiari buruzkoa, bera euskaltzain izendatua izan aitzin idatzia, dena gatz eta piper) eta bederatzi ipuin. Hots, Zerbitzariren dohain zabalen itzulia egiten dugu horiek guzietan. Gehiago irakurri nahi duenak jo dezake ere Piarres Charrittonek paratutako *Azkaine gure sorterrria* liburura (Elkar, 1985), edo ere Henri Duhau senperrak paratutakora: *Bahmar deitu salbaiak*, Pierre Dourisboure beskoiztarraren obraren itzulpena (Euskaltzaindia 2014).

Liburu honetako kronikak argitaratzerakoan, autorearen ahal bezain oinarrri hurbilenetara jo du Kaltzakortak, eskuizkribuetara, aurkitu dituelarik, lehen iturburutik hurbilen gelditzeko. Alabaina, aldizkarietan agerturiko testuak nonbait jada kutsatuak ditu inprimaketa lanak. Bestalde, orduko idazmoldea atxiki du Kaltzakortak, *ch*, *ph* eta beste, Iparraldeko orduko tradizioari leial egonez. Hautu bat da. Pertsonalki, horrelako testuak nahia go ditut irakurri gaurko ortografiari egokituak, baina egia da jatorrizko idazmoldearen irakurketak ere baduela bere xarma, bete-beteagan egoten baikara orduko giroan. Dena den, Kaltzakortak aitortzen baitigu arras maite duela estilo araz eta ederreko idazle lapurtarra, guri ere maitarazten digu, hertsikeriak aparte, haren idazmolde aberats eta zoragarria. Eskerrak zuri, Jabier!